

ERANDIOKO UDALAREN IKASTAROEI ETA JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

LEA/AVC 495-SUST-2021

Laburpena:

I. TXOSTENAREN XEDEA.....	1
II. LEA/AVC-REN JARDUKETAK	2
III. ERANDIOKO UDALAREN IKASTAROAK ETA JARDUERAK	2
1. Erandio in English	2
2. Uda Berezia 2020	3
3. Gabon Berezia 2020	4
4. Aste Santu Berezia 2021	4
5. Gaztealdia Auzolana 2021	5
IV. AZTERKETA, LEHIAREN IKUSPEGITIK.....	5
1. Ohar orokorrak.....	5
2. Udal-eskumenak	6
3. Analisia	9
A. Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020, Aste Santu Berezia 2021 eta Gaztealdia Auzolana 2021	9
B. Erandio in English	10
V. LEA/AVC-REN AURKARATZE-ESKUMENA.....	11
VI. ONDORIOAK	12

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea
Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea
Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea
Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako osaera duela, txosten hau eman du 2021eko uztailaren 28an egindako bileran, Erandioko Udalak ingeleseko ikastaroak emateari buruz.

I. TXOSTENAREN XEDEA

1. 2021eko apirilaren 15ean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA/AVC) egoitza elektronikoan, XXXk, YYY hizkuntza-akademiaren jabeak, aurkeztutako idazki bat jaso zen. Idazki horretan adierazten zuenez, 2020ko martxoaren 2an Erandioko Udaleko sare sozialetan «Erandio in English» programaren iragarkia ikusi zuen, zeinetan



ingelesez hitz egiteko astean 2 orduko eskolak eskaintzen baitziren, hainbat hilabetez, 25 euroren truke. Ikastaro hori edonori zuzenduta dago, udalerrian erroldatuta egon edo ez, eta ez du beste baldintzarik eskatzen; errenta-muga, esaterako.

Adierazitakoaren arabera, programa horrek beste zati batzuk ditu, hala nola Erandioko ikastetxeetan bertan ingeleseko eskolak doan ematea, edo ikasleak azterketa ofizialetarako –First, adibidez– doan prestatzea, errenta baxuko edo gizarte-bazterketako egoerak kontuan hartu gabe, eta horrek nabarmen murriztu du bere akademiako matrikulazio-kopurua.

«Erandio in English» programa 2018ko abuztuan atera zen lehiaketara, prestakuntza-entresak –besteak beste, YYY– itxita dauden hilabete bakarrean.

Halaber, XXXk kexa azaldu zuen "Uda Berezia 2020", "Gabon Berezia 2020", "Aste Santu Berezia 2021" eta "Gaztealdia Auzolana 2021" programengatik.

2. Txosten hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak (otsailaren 2ko 1/2012 Legea), 3.3.e) artikuluan, erakunde honi esleitu dion eskumenari jarraituz eman da; zehazki, «merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea administrazio publikoei» eskumenari.

II. LEA/AVC-REN JARDUKETAK

3. 2021eko maiatzaren 24an, LEA/AVCk honako informazio hau eskatu zion ERANDIOKO UDALARI:

Honako ikastaro edo jarduera hauen kontratazio-espeditente osoak:

- Erandio in English
- Uda Berezia 2020
- Gabon Berezia 2020
- Aste Santu Berezia 2021
- Gaztealdia Auzolana 2021

Informazio hori 2021eko ekainaren 10ean sartu zen LEA/AVCren erregistroan.

III. ERANDIOKO UDALAREN IKASTAROAK ETA JARDUERAK

1. Erandio in English

4. Erandioko Udaleko Gazteria Sailak bultzatutako proiektua da, bi ataletan banatua:

- Ekintzak ikastetxeetan



Ingeleseko ikastaro espezifikoa, azterketa ofizialak prestatzeko (B1/B2/C1) eta batxilergo hirueleduna aukeratzea sustatzeko. Jado Ikastetxea, Erandio BHI, Astrabudua BHI eta Ategorri BHI ikastetxeetan egiten da, bai DBHko 4. mailako bai Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat.

Ikastaro bakoitzak 15 pertsona ditu gehienez, eta ordu eta erdiko saioetan egituratzen da, urtean 30 saio gutxienez, egutegiaren arabera banatuta. Hau da, gutxienezko eskaintza 135 eskola-ordukoa da.

- Gazteei irekitako ekintzak: "Speaking English — Oral Skills"

Ingeleseko elkarrizketa-ikastaroak dira, maila ertain/altua duten gazteei zuzendutakoak, hizkuntza honako helburu hauetarako praktikatzeko: hizkuntza hobetuz enplegua lortzeko aukera izateko, errendimendu akademikoa optimizatzeko, autonomia areagotzeko, atzerriko herrialdeetan moldatzeko, etab.

Urtean lau ikastaro egiten dira: bi lehenengo sei hilekoan; beste bi, berriz, bigarren sei hilekoan. Horietatik bi Alzagan egiten dira eta beste bi Astrabuduan, eta eskola bakoitzak bi orduko iraupena du (18:30etik 20:30era).

Gutxienez 18 saio izango dira, egutegiaren arabera banatuta; beraz, guztira, urtean 72 ordu izango dira gutxienez.

Erroldatutako 15 eta 35 urte bitarteko gazteentzat dira bereziki, baina plazak sobera badaude, eskaintza gainerako biztanleentzat ere bada.

5. Zerbitzu-kontratuak 2 urteko indarraldia du, baina bi alderdiek adostuz gero, luzatu ahal izango da. Dena den, guztizko iraupena gehienez ere 4 urtekoa izan daiteke, luzapenak barne.

Administrazioak formulatutako oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa 9.000,00 eurokoa da, BEZik gabe.

Kontratua **prozedura ireki sinplifikatuaren** bidez esleitu zen, eta lizitazaile bakarra DOOS COLEKTIBO KULTUR ELKARTEA izan zen (IFK: G95708202), 8.580,00 euroko zenbatekoaren truke.

2. Uda Berezia 2020

6. Programa honetako jarduerak 2020ko ekainaren 29tik uztailaren 30era bitartean egin ziren, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, bi motatako lekuetan: batetik, aire zabalean eta, bestetik, hainbat instalaziotan, esaterako, Gaztetxokoan, Alzagak eta Astrabuduko kiroldegietan, Erandiogoikoko Soziokulturalean, Arteagako futbol-zelaian, Alzagak eta Astrabuduko ludoteketan, Josu Murueta kultur etxean, udaletxe zaharrea eta Goikolanda eta Ignacio Aldekoa ikastetxeetan.



Taldeak gehienez 12 hurrez osatuta zeuden, begiraleak barne, eta guztira 450 haur izan ziren.

7. Aipatutako jardueren kostua Erandioko Udalak finantzatu zuen, guztira 39.500 €, **dirulaguntza** bidez, AUSARTZEN ASIALDI ELKARTEA (IFK: G98709101, 12.500 €) eta KILKIRTXU GAZTETXOAK (IFK: G95136008, 27.000 €) erakundeekin hitzarmen bat sinatu ondoren.

3. Gabon Berezia 2020

8. Programa horretako jarduerak 2020ko abenduaren 28tik 31ra bitartean egin ziren, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, aire zabalean eta hainbat instalaziotan, esaterako, Gaztetxokoan, Altzaga eta Astrabuduko kiroldegietan, San Lorentzo futbol-zelaian, Astrabuduko ludotekan, Josu Murueta kultur etxean eta anbulatorio zaharrear.

Taldeak gehienez 6 hurrez osatuta zeuden, begiraleak barne, eta guztira 90 haur izan ziren.

9. Aipatutako jardueren kostua Erandioko Udalak finantzatu zuen, guztira 15.000 €, **dirulaguntza** bidez, AUSARTZEN ASIALDI ELKARTEA (IFK: G98709101, 7.500 €) eta ASTRABUDUAKO FUTBOL TALDEA (IFK: G48503668, 7.500 €) erakundeekin hitzarmen bat sinatu ondoren.

4. Aste Santu Berezia 2021

10. Programako jarduerak 2021eko apirilaren 6tik 9ra bitartean egin ziren, asteartetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, aire zabalean eta hainbat instalaziotan, esaterako, Gaztetxokoan, Altzaga eta Astrabuduko kiroldegietan, San Lorentzo futbol-zelaian, Astrabuduko ludotekan, Josu Murueta kultur etxean eta anbulatorio zaharrear.

Taldeak gehienez 6 hurrez osatuta zeuden, begiraleak barne hartu gabe, eta guztira 54 haur izan ziren. Taldeak 5-7 urteko, 8-10 urteko eta 11-12 urteko 3 kategoriatan antolatu ziren.

11. Aipatutako jardueren kostua Erandioko Udalak finantzatu zuen, guztira 6.855,77 €, **dirulaguntza** bidez, AUSARTZEN ASIALDI ELKARTEA (IFK: G98709101) erakundearekin hitzarmen bat sinatu ondoren.



5. Gaztealdia Auzolana 2021

12. Herriko gazteek Aste Santuan egiteko jarduera-programa bat izan zen.
13. Zerbitzua gauzatzeko epea hilabetekoa izan zen. Administrazioak formulatutako oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa 6.166,16 eurokoa izan zen, BEZa barne.
14. Kontratua **kontratu txiki** gisa izapidetu zen, hiru enpresari eskaintza ekonomikoa egiteko eskatuta, eta RK ABENTURA 2008 SL erakundeari (IFK: B95526075) esleitu zitzaion, 5.096,00 euroren truke (gehi 1.070,16 euroko BEZa).
- Gainerako eskaintzaileak honako hauek izan ziren: BI SPORT 2011 SL (IFK: B95658431, 5.600,00 €, BEZ kanpo) eta ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL (IFK: B48910525, 6.691,90 €, BEZ kanpo).

IV. AZTERKETA, LEHIAREN IKUSPEGITIK

1. Ohar orokorrak

15. Bere eskumenak gauzatze aldera, administrazio batek neurri bat hartu eta, horren ondorioz, operadore bati balizko abantaila bat ematen dionean eta horrek merkatuan ondorioak eragin ditzakeenean, honako arrazoiren batean oinarritu beharko litzateke¹:
- Merkatuan akatsak egotea; hau da, merkatua baliabideak esleitzeko mekanismo beharrezko hoberena ez izatea, edo
 - beste helburu batzuk bilatzea, esaterako, merkatu-emaitzak hobetzea birbanaketari dagokionez, edo helburu ez ekonomikoak lortzea.
16. Administrazioaren esku-hartzeak abantailak izan ditzake –ekonomikoki kuantifikatu behar diren etekinak, kostuekin alderatu ahal izateko–, baina baita eragozpenak ere,

¹ LEA/AVC, Eibarko Herritar Txartelari buruzko txostena, 241-SUST-2017. Hemen eskura daiteke: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/241_INFORME_TARJETA_CIUADANA_EIBAR_web_eu.pdf

LEA/AVC, Txostena, Bilboko Zabalgune eraikinerako sarbidea arautzen duten oinarrii buruzkoa, 481-PROM-2020. Hemen eskura daiteke: https://www.legegunea.euskadi.eus/contenidos/tramita_informe/informe_bilbao_ekintza210428/eu_def/INFORME-SOBRE-LAS-BASES-REGULADORAS-DE-ACCESO-AL-EDIFICIO-ENSANCHE-DE-BILBAO-DEF_EU.pdf

CNMC, Laguntza publikoak ebaluatze metodologia-agiria, PRO/CNMC/001/16, hemen eskuragarri: <https://www.cnmc.es/file/107238/download>.



eta azken horiek minimizatzeko beharrezkoa da ebaluatzea, *ex ante*, proiektatutako neurria diskriminatzailea den, eta beharrezkotasunaren, egokitasunaren eta lehiakortasuna ahalik eta gutxien mugatzearen eta proportzionaltasunaren baldintzak betetzen dituen. Ebaluazio hori hiru urratsetan oinarrituko litzateke:

- **Beharrezkotasuna:** neurriak ezinbestekoa izan behar du merkatu-akats bat zuzentzeko edo interes komuneko helburu bat lortzeko, hala nola birbanaketa edo beste helburu ez ekonomiko batzuk lortzea. Horretarako, funtsezkoa da lortu nahi den helburua ondo identifikatzea.

- **Egokitasuna eta lehiakortasuna ahalik eta gutxien murriztea:** neurriak egokia izan behar du merkatu-akatsa zuzentzeko edo interes komuneko helburua lortzeko. Hortaz, administrazioak esku hartzeko beste modu batzuk edo laguntzeko tresnaren beste diseinu batzuk aztertu behar dira. Gainera, ez lirateke alboratu behar merkatuak herritarren ongizatea hobetzeko eskain ditzakeen konponbideak.

- **Proportzionaltasuna:** neurriak helburua lortzeko ezinbesteko elementuak izan behar ditu. Era berean, neurriaren etekinek lehiaren gaineko kostu potentzialak gainditu behar dituzte, bai eta efizientziaren eta diru-kutxa publikoaren gainekoak ere.

2. Udal-eskumenak

17. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 25.2 artikuluan ezartzen ditu udalerriek berezkoak dituzten eskumenak. Honako hauek dira:

- a) Hirigintza: antolamendua, kudeaketa, egikaritza eta diziplina. Ondare historikoa babestea eta kudeatzea. Babes publikoko etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea, finantza-jasangarritasun irizpideetan oinarrituta. Eraikinak kontserbatzea eta birgaitzea.
- b) Hiri-ingurumena: batik bat parke eta lorategi publikoak, hiriko hondakin solidoen kudeaketa, eta hiri-eremuetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa.
- c) Edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua.
- d) Bide-azpiegiturak eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk.
- e) Gizarte-premia duten egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta.
- f) Tokiko polizia, babes zibila, suteei aurrea hartzea eta suteak itzaltzea.
- g) Trafikoa, ibilgailuen aparkalekua eta mugikortasuna. Hiri-garraio kolektiboa.
- h) Intereseko edo tokiko jarduera turistikoaren informazioa eta sustapena.
- i) Azokak, hornidurak, merkatuak, lonjak eta kale-merkataritza.
- j) Herri-osasungarritasunaren babesa.
- k) Hilerrak eta hileta-jarduerak.
- l) Kirolaren eta kirol-instalazioen nahiz aisialdirako instalazioen sustapena.
- m) Kulturaren eta kultura-ekipamenduen sustapena.
- n) Nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren



orubeak lortzeko. Tokiko titulartasuneko eraikinak –haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxeetara bideratuta daudenak– kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea.

ñ) Udalerrian sustatzea herritarrek parte har dezaten informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera efizientea eta eraginkorra egiteko.

o) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak.

18. Era berean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko toki-erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan udalerrien berezko eskumenen zerrenda jasotzen du:

- 1) Babes zibila, larrialdiak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
- 2) Espazio publikoetan bizikidetzaren harremanak antolatzea eta kudeatzea.
- 3) Titulartasun publikoko zerbitzuak, ekipamenduak, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
- 4) Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
- 5) Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- 6) Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
- 7) Etxebizitzaren inguruko plangintza, programazioa eta kudeaketa egitea.
- 8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
- 9) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
- 10) Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
- 11) Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
- 12) Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
- 13) Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- 14) Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
- 15) Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabileradun uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
- 16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
- 17) Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.



- 18) Pertsonen garraio publikoko hiri-zerbitzuak —garraiatzeko modua dena dela— antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udalerrriaren barruan egiten bada osorik.
- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- 21) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
- 22) Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
- 23) Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
- 24) Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- 25) Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
- 26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
 - Izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.
 - Beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeaz gain, erabilera ere dinamizatzea, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz edota beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.
 - Beren lurralde- eta eskumen-eremuan nomenklatura ofiziala ezartzea, eta, oro har, toponimoen eta toki geografikoen prozedura eta onarpena arautzea]
- 27) Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- 28) Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.
- 29) Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
- 30) Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugartean.
- 31) Udalerrriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).



- 32) Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko irizitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
- 33) Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- 34) Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatu eta kudeatuko dute. Hor sartzan dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatu eta antolatzeko lanak, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostea erregulatu, ikuskatu eta zehatzeko lanak ere.
- 35) Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
- 36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
- 37) Garapenerako lankidetzak alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

3. Analisia

A. Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020, Aste Santu Berezia 2021 eta Gaztealdia Auzolana 2021

- 19.** 7/1985 Legearen 25.2 artikularen l) letrak udalaren eskumen propio gisa jasotzen du kirola eta kirol-instalazioak sustatzea eta aisialdia betetzea.
- 20.** Horregatik, Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020, Aste Santu Berezia 2021 eta Gaztealdia Auzolana 2021 jarduerak aisialdia betetzeko eskumen horretan sar daitezke.
- 21.** Jarduera horiek udal-eskumenetako baten barruan sartzen direla onartuta, bidezkoa da aztertzea ea udalaren esku-hartzea justifikatuta dagoen merkatuan akatsak daudelako edo beste helburu batzuk bilatzen direlako, hala nola merkatuaren emaitzak hobetzea birbanaketari dagokienez edo helburu ez-ekonomikoak lortzea.
- 22.** Erandioko Udalak honela justifikatu du Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020 eta Aste Santu Berezia 2021 jardueretan parte hartu izana, diruz lagundutako erakundeekin sinatutako hitzarmenetan jasota dagoenaren arabera:
- COVID-19ak eragindako egungo egoerak «edukiera eta segurtasun-neurriak aplikatzeko zailtasunak, aurrekontu-mugak eta lana eta familia bateragarri egiteko arazoak eragiten ditu, eta, ondorioz, udan jardueren eskaria handitu egiten da. Erandioko Udalak kontziliazio-beharrak dituzten familiei erantzuteko ardura du.



Eskaerari erantzuteko, gizarte- eta hezkuntza-jarduerak eskaintzeko ahalegina egin da, batez ere espazio irekietan eta udal-ekipamenduetan eskaintzekoa, udalerrriaren berezitasuna ezagutzen duten eta *proiektuaren xede den kolektiboarekin jarduerak antolatzen eta garatzen esperientzia duten* toki-erakundeen bidez. [etzanez idatzitako hitz-tartea Gabon Berezia 2020n eta Aste Santu Berezia 2021en bakarrik]

Proiektu honetan parte hartu ahal izateko, erakundeek aipatutako helburuarekin zuzeneko lotura duten jarduerak gauzatu ahal izateko begiraleak eta materiala kontratatzeak dakartzan gastuei aurre egin behar diete.

Halaber, Gaztealdia Auzolana 2021 programari dagokionez, kontratazio-espedientea hasi eta onartzeko 667/2021 Dekretuak honako hau jaso zuen:

IKUSIZ Kirol Sailak Aste Santuan udalerriko gazteekin programa berri bat egin nahi duela, zeina ekintza berri posibleetarako erreferentzia izango den,

IKUSIZ Udalak ez duela baliabide pertsonal eta material egoki eta nahikorik lehen aipatutako lanak egiteko, eta

IKUSIZ beharrezkotzat jotzen duela enpresa espezializatu bat kontratatzea erreferentziako zerbitzua egiteko, (...)

23. Ondorioz, adierazi behar da Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020, Aste Santu Berezia 2021 eta Gaztealdia Auzolana 2021 jarduerak, aisialdia betetzeko udal-eskumenaren barruan sartuek, helburu ez-ekonomikoak lortzeko xedea dutela oinarri; besteak beste, COVIDaren garaian familien kontziliazio-beharrak asetzea.

24. Hala ere, ez da inola ere ulergarria Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020 eta Aste Santu Berezia 2021 jarduerak dirulaguntza bidez finantzatu izana, kontratu txiki gisa izapidetu ordez, Gaztealdia Auzolana 2021en kasuan bezala, eta hiru jardueretan AUSARTZEN ASIALDI ELKARTEA erakundeari dirulaguntza eman izana, bakarka edo beste erakunde batekin batera.

25. Horregatik, LEA/AVC honek eskatzen du Erandioko Udalak, hurrengoetan, lehia bermatuko duen prozedura baten bidez izapidetu ditzala jarduera horiek edo antzekoak, kontratazio publikoko araudiarekin bat etorriz. Horrela, jarduera horiek lehia askean egiteko aukera izango litzateke.

B. Erandio in English

26. Estatuko oinarrien legean eta EAEko legean jasotako udal-eskumenen artean ez dago jasota hizkuntza-ikastaroak ematea. Hizkuntzei egiten zaien aipamen bakarra EAEko legearen 7. eta 17.26 artikuluetan euskararekin lotutakoa da.



27. Hala ere, udalak ikastaro hori antolatzeko emandako justifikazioa aztertuta, aipatzen den bakarra da

azterketa ofizialak prestatzeko ingeles-ikastaro espezifikokoak egin beharra, Erandioko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan batxilergo hirueleduna aukeratzea sustatzea eta ingeleseko elkarrizketa-ikastaroen bidez enplegua lortzea sustatzea. (I.1.2 Administrazio-klausulen agiria

28. Ez da alegatzen merkatuan akatsik dagoenik, hala nola udalerrian ingeleseko akademiarik ez egotea –hori ez da gertatzen²–, ez eta beste helburu batzuk bilatzea ere, hala nola merkatuaren emaitzak hobetzea birbanaketari dagokionez edo helburu ez-ekonomikoak lortzea, hala nola ikastaro hori erosteko ahalmen txikia duten edo bazterketa-arriskuan dauden gazteei zuzentzea. Aitzitik, ikastaro hori interesa duten gazte guztiei eskaintzen zaie doan.

29. Beraz, Erandioko Udalak distortsionatu egin du udalerrian ingeleseko ikastaroak emateko merkatua, Estatuko oinarrien legean eta EAEko legean berariaz jaso ez den eta merkatu-akatsik ez duen eskumen bat gauzatu baitu. Hortaz, udalerrian ingelesa jakitea premiazkoztat jotzen bada, distortsio-maila txikiagoko formulak erabili ahal izango zituzkeen, esate baterako, beharra justifikatzen duen erroldatutako gazte bakoitzari dirulaguntza zuzena ematea, ingeleseko ikastaroak berak aukeratutako akademian egiteko.

V. LEA/AVC-REN AURKARATZE-ESKUMENA

30. Lehiaren Defentsari buruzko Legeak (uztailaren 3ko 15/2007 Legea) 13.2 artikuluan ezartzen duenez, autonomia-erkidegoetan eskumena duten organoek legitimitatea izango dute eskumena duten jurisdikzioan administrazio-zuzenbideari loturik dauden administrazio publikoen ekintzak edo legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkaratzeko, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legeak (otsailaren 2ko 1/2012 Legea) 3.4. artikuluan organismo honi esleitzen dizkion eskumenen arabera, egintza hauek aurkaratu ahal izango ditu administrazioarekiko auzien jurisdikzioan: administrazio-zuzenbideari loturik dauden Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen (erkidegoko, foru- eta toki-administrazioak) egintzak eta legea baino beheragoko xedapen orokorrak, horien bidez merkatuko benetako lehiari oztopoak jartzen baldin

² Interneten bilaketa azkar bat eginez gero, ingeleseko ikastaroak ematen dituzten akademia hauek agertzen dira, gutxienez: Mundo Idiomas, Bristol School Of Languages, Brixton School, McLawrence akademia, etab.



bazaizkio. Eskumen horretatik kanpo geratuko dira Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek onartutako foru-arau fiskalak.

31. Arau horien kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa da, aurkaratutako xedapena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko Legeak (uztailaren 13ko 29/1998 Legea) 46. artikuluan finkatutakoari jarraituz.

32. Kasu honetan, Erandio in English programaren kontratuaren deialdia eta esleipena 2018an egin zirenez, LEA/AVCk ezin du administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri epeak direla-eta.

VI. ONDORIOAK

LEHENA: Uda Berezia 2020, Gabon Berezia 2020, Aste Santu Berezia 2021 eta Gaztealdia Auzolana 2021 jarduerak aisialdia betetzeko udal-eskumenaren barruan sartzen dira, helburu ez-ekonomikoen lorpenean oinarrituta, besteak beste, COVID garaian familien kontziliazio-premiak asetzea.

BIGARRENA: LEA/AVCk eskatzen du Erandioko Udalak, hurrengoetan, kontratazio arloko egungo araudiaren arabera lehia askea bermatzen duten prozeduren bidez izapidetu ditzala Uda Berezia, Gabon Berezia, Aste Santu Berezia eta Gaztealdia Auzolana jarduerak edo antzekoak, edozein erakundek, irabazi-asmokoa izanda edo izan gabe, jarduera horiek lehia askean egiteko aukera izateko.

HIRUGARRENA: Estatuko oinarrien legean eta EAEko legean jasotako udal-eskumenen artean ez dago jasota hizkuntzak irakastea, euskararen kasuan salbu.

LAUGARRENA: Erandioko Udalak udalerriko ingeleseko ikastaroak emateko merkatuan esku hartu du, nahiz eta merkatuko akatsik ez egon. Hala ere, udalerrian ingelesa jakitea premiazkotzat jotzen bada, formula ez hain distortsionatzaileak erabil zitzakeen; esate baterako, beharra justifikatzen duen errolatutako gazte bakoitzari dirulaguntza zuzena ematea, ingeleseko ikastaroak berak aukeratutako akademian egiteko.

BOSGARRENA: Erandioko Udalak jarrera neutrala izan behar du merkatu guztietan, eta horietan parte hartzen badu, operadore ekonomikoen arteko lehia askerako eta berdintasunerako baldintzak errespetatu behar ditu.